

# TESTUAREN KOHERENTZIA HOBETZEKO HIRU BALIABIDE





# Zer da testuaren koherentzia?



Testu baten egoera da, zeinetan osagaiak gorputz solidarioetan agertzen diren.

Koherentzia testuaren esanahi osoari lotzen zaion kontzeptua da.  
Honetan oinarritzen da: testuan pixkanaka agertzen den informazioak sortutako itxaropenen ustiapen diskurtsiboan.

Testuaren egileak plan orokor bateratu bat garatzen du, duen asmo komunikatiboa betetzeko aukera ematen diona.




[M<sup>o</sup> Azuzena Penas Ibáñez *El Cibertexto y el ciberlenguaje*  
argitalpenetik ateratarako testuak (71. or.)]



Testuaren koherentziak zerikusia du testurako aukeratu dugun egitura orokorrarekin eta testuaren zatiak banatzeko moduarekin.

Era berean, estu lotuta dago testu osoan idazketa-irizpide berak aplikatzearekin, edukiaren ulermena oztopatzen duten kontraesanetan ez erortzeko.



Imajina dezagun testu honen koherentzia hobetu nahi dugula:

Sumario-eginbideak askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea. Ikerketa-ekintza bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzerara edo aurkitzerara, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea. Bestalde, ikerketa-egintza prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketan egiten da. Sumario-eginbideak delitu astunen edo zigor prozedura arruntan ondoriozko prozesu penalaren instrukzio-fasean gauzatzen diren egintzak dira, ustezko delituak izan diren egitateak eta haien inguruabarrak argitzeko eta egiaztatzeko, bai eta horiek egin zituzten pertsonak identifikatzeko ere.



**Lehenengo baliabidea:**

**Aplikatu idazketa-irizpide berak testu osoan**

Testu koherenteak idazteko, ezinbestekoa da kontraesanak eragin ditzaketen formula guztiak zuzentzea.

Beheko paragrafoan ikus daitekeenez, hasierako testuan erabilitako lexikoak kontraesanetan erortzeko arriskua dakar:

**Sumario-eginbideak** askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea. **Ikerketa-ekintza** bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzerara edo aurkitzera, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea. Bestalde, **ikerketa-egintza** prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketean egiten da.

Kontzeptu jakin bat aipatzeko izendapen bat aukeratzeko dugunean, komeni da testuan zehar ez aldatzea, gaizki-ulertuak saihesteko.

**Sumario-eginbideak** askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea. **Sumario-eginbidea** bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzerara edo aurkitzerara, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea. Bestalde, **sumario-eginbidea** prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketan egiten da.



**Bigarren baliabidea:**

**Egituratu testua testu-zatiak nola banatu diren argi ikusteko moduan**

Testuaren egiturari buruzko erabaki guztiek koherentziari eragiten diote. Hain zuzen ere, egiturak adierazten du osotasun baten zatiek (testuaren zatiek, kasu honetan) haien artean dituzten harremanen multzoa.

# Testu-egitura

Testu-egitura argiak onura handiak dakartza:

- Irakurleari lagundu egiten dio funtsezko edukia eta berezitasunak errazago bereizten, eta, horrela, eskaintzen zaion informazio-multzoa hobeto ulertzen.
- Idazleari testu-elementu bakoitza modu eraginkorragoan egokitzen laguntzen dio, dagokion funtzio espezifikoa bistatik galdu gabe.

# Testu-egitura

Testuaren egiturak elementu hauek izan ditzake nagusiki: izenburua eta tarteko izenburuak, sarrera, testuaren gorputza, amaiera, oin-oharrak eta erantsitako dokumentuak.

Horietako elementuren baten testua luzea bada, paragrafotan edo kapitulutan bana dezakegu.



Halaber, paragrafo batean hainbat elementu daudela azpimarratu nahi badugu, oso eraginkorra da horiek zerrenda bidez eskaintzea.

Beraz, testuak zatitzeko, egituratzeko, baliabide asko ditugu.



Sarritan, testu-egitura alderdi estetikoarekin bakarrik lotzen dugu. Hala ere, testu-elementu bakoitzak berariazko funtzio bat betetzen du. Adibidez:

- Izenburuak hitz gutxitan laburbiltzen du testuaren edukia, eta tarteko izenburuak testuaren zati batena.
- Sarrerak testuinguruaren barruan kokatzen gaitu testuaren hasieratik.
- Oin-oharrek berezitasunak eskaintzen dituzte, eta erantsitako dokumentuek edukian sakontzeko aukera ematen dute informazio osagarria ematean.

Hasierako testuaren koherentzia hobetzeko, egitura aldatuko dugu; eta, horretarako, lehen aipatutako testu-elementuetako batzuk erabiliko ditugu.

Hasierako egitura aldatzeak, sarritan, testuaren zatiak aurkezteko ordena ere aldatzera bultzatzen gaitu:

Hasierako testuaren azken definizioa ("Sumario-eginbideak ... dira") proposatutako testuaren sarrera izango da, eta, beraz, testuaren funtsezko helburuaren testuinguruan kokatzen lagunduko digu hasiera-hasieratik. Gainera, aukera horrek testuaren funtsezko edukia laburbiltzen duen izenburu orokor bat eranstea errazten du.

**Sarrera:**  
testuinguru  
jakin batean  
kokatzen  
gaitu  
hasieratik  
bertatik

Zer dira sumarioko eginbideak?

**Titulua:** testuaren edukia laburbiltzen du hitz gutxitan

Sumario-eginbideak delitu astunen edo zigor prozedura arruntan ondoriozko prozesu penalaren instrukzio-fasean gauzatzen diren egintzak dira, ustezko delituak izan diren egitateak eta haien inguruabarrak argitzeko eta egiaztatzeko, bai eta horiek egin zituzten pertsonak identifikatzeko ere.

Zertan bereizten dira sumario-eginbideak eta froga-egintzak?

**Tarteko izenburua:** testu-zati baten edukia laburbiltzen du

Sumario-eginbideak askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea:

**Zerrenda:**  
aukera  
batzuk  
daudela  
adierazten du

- Xedea: Sumario-eginbidea bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzea edo aurkitzea, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea.
- Prozesuan, zein unetan egiten den: Sumario-eginbidea prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketean egiten da.



## Hirugarren baliabidea:

**Diseinu-elementuez baliatu** (letra-tamaina, hondoak, letra mota, etab.), irakurleari testuaren egitura eta edukiaren gako-hitzak erraz antzematen laguntzeko.

**Letra-tamaina handiagoa**  
titulurako; **lodiz eta zentratuta**  
idatzi

## Zer dira sumarioko eginbideak?

Sumario-eginbideak delitu astunen edo zigor prozedura arrunten ondoriozko prozesu penalaren instrukzio-fasean gauzatzen diren egintzak dira, ustezko delituak izan diren egitateak eta haien inguruabarrak argitzeko eta egiaztatzeko, bai eta horiek egin zituzten pertsonak identifikatzeko ere.


### Zertan bereizten dira sumario-eginbideak eta froga-egintzak?

**Fondo grisa** tarteko izenburuetan  
(gako-hitzetatik bereizteko)

**Letra lodiz**  
zerrendako  
itemen  
hasierako  
elementuak  
(gako-hitzak)

Sumario-eginbideak askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea:

- **Xedea:** Sumario-eginbidea bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzerara edo aurkitzera, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea.
- **Prozesuan, zein unetan egiten den:** Sumario-eginbidea prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketean egiten da.



Hurrengo diapositiban, hasierako testuaren eta proposatutako testuaren arteko aldea islatu nahi izan dugu.

Eragin estetikotik haratago, bi testuen eraginkortasun komunikatiboari erreparatzera gonbidatzen zaituztegu.



Sumario-eginbideak askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea. Ikerketa-ekintza bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzea edo aurkitzera, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea. Bestalde, ikerketa-egintza prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketean egiten da. Sumario-eginbideak delitu astunen edo zigor prozedura arruntan ondoriozko prozesu penalaren instrukzio-fasean gauzatzen diren egintzak dira, ustezko delituak izan diren egitateak eta haien inguruabarrak argitzeko eta egiaztatzeko, bai eta horiek egin zituzten pertsonak identifikatzeko ere.

### Zer dira sumarioko eginbideak?

Sumario-eginbideak delitu astunen edo zigor prozedura arruntan ondoriozko prozesu penalaren instrukzio-fasean gauzatzen diren egintzak dira, ustezko delituak izan diren egitateak eta haien inguruabarrak argitzeko eta egiaztatzeko, bai eta horiek egin zituzten pertsonak identifikatzeko ere.

### Zertan bereizten dira sumario-eginbideak eta froga-egintzak?

Sumario-eginbideak askotan nahasten dira froga-egintzekin. Beharrezkoa da bi kontzeptuak mugatzea:

- **Xedea:** Ikerketa-ekintza bideratzen da ezagutzen ez diren datuak egiaztatzea edo aurkitzera, baina froga-egintzaren helburua da alderdi jakin batek egindako egitateen baieztapena egiaztatzea.
- **Prozesuan, zein unetan egiten den:** Ikerketa-ekintza prozedura arruntaren instrukzio-fasean gauzatzen da; aitzitik, froga-egintza ahozko epaiketean egiten da.

Berrikusten al duzu sortzen  
dituzun testuen koherentzia?

Hobetzeko baliabiderik erabiltzen  
al duzu?



Modu eraginkorrean  
komunikatu nahi baduzu,  
hartu denbora tarte bat  
horretarako.

